**ZENBAT BURU**
Maite Vallejo

**ERREPORTAJEA**
Elgoibartarrak eztigintzan

**UDALETXETIK**
Enpresa berriak Lerun inguruan

**BERBETAN**
Nieves Maidagan errestauratzallea

**KIROLA**
56. Nazioarteko Juan Mugerza krosa

# B RREN

1999ko urtarrilaren 22a
II. urtea - 263, zkia
E L G O I B A R K O   A S T E K A R I A







## 56. Juan Mugerza krosa

# Paul Tergat, munduko txapelduna Mintxetan

**GARATE**
Jantzidenda
*Beherapenak*

**BEHERAPENAK • BEHERAPENAK**

# 1010 V

**%50** eta %30eko beherapena

Eskaintza berezia: %20ko beherapena zenbait artikulutan

Denda **pegatinaz** beteta daukagu.
Etorri eta topatu.

PITXINTXU
ESKAINTZA BEREZIA

*Artikulu askotan aurkituko dituzu.*

Pegatinadun artikulu guztiek beherapena dute.

Maidagan

**BEHERAPENAK**
**%20, %30 eta %40**

**BEHERAPEN BEREZIAK**

ISTIGARRMA
Kirolak

Berrikuntza lanak direla-eta
heibide berri honetan gaude:
San Bartolome, 8

L E
*Merkealdiak*

Puntako markak beherapenekin:

- LACOSTE
- CARAMELO
- RALP LAURENT
- ADOLFO DOMINGUEZ
- LEVI'S
- DIESEL
- LIBERTO



MAITE VALLEJO

# lorionatsunaren pedagogia

Sarritan entzuten dugu bizitza honetan garrantzitsuena zoriontsua izatea dela. Nork ez du zoriontsua izaterik nahi? Eta lor al daiteke?

Denok dakigu, baita ere, zoriontasuna ez dela ez saltzen eta ez erosten; erostekoa balitz... zer nolako ilarak sortuko ziren! Beraz, eros daitekeen gauza bat ez bada, eta hain zaila izanik, nola lor daiteke zoriontsua izatea?

Lerro hauen bitartez esan nahi dudana da baietz, badaudela bideak, badaudela aukerak zoriontasunera iristeko `giltzak' ematen dituztenak.

Hori eskuratzeko lehenengo bete behar diren baldintzak bi dira: bat, gogoa edo bilatzeko nahia izatea. Bizitzan saiatu egin behar da, irekia egon behar da. Hurrengo pausoa bide horretan abiatzeko jende egokiarengana hurbiltzea litzateke. Hitz batean esanda: mundu berriak ezagutzeko prest egon behar dugu; beste askok lortu duten zoriontasuna guk ere lor dezakegula jakinez; `giltz' hori eskuratu ezkero atea ireki bakarrik egin behar dugula, gure barruak eskatzen duen zoriontasunera iristeko.

Askok pentsa dezakete zoriontasuna kanpoan aurkitzen dela: bidaiak egin, modak jarraitu, etxe dotoreak izan, pitxiekin apaindu, etab... horiek denak ondo daude baina bere neurrian, jakina da.

Orain dela gutxi psikiatra bati irratiz zera entzun nion depresioa dela-eta: zenbat eta lehenago lortu gauza bat orduan eta lehenago sortzen dela beste gauza baten desioa. Honek esan nahi du gure barruko aspirazioak ez direla kanpoko gauzekin asetzen eta urteak pasa ahala sentipen hau gero eta garbiago bizitzen da.

Indiako ipuin batek argi azaltzen du aipatu dugun arazo hori: ba omen zen adarrik gabeko animalia eder bat. Mendian ibiltzen zen horietakoa zen. Behin, arkaitz artean zebilela, usain' zoragarri eta berezia somatu zuen inguruan. Usain horrekin txunditurik, alde batera eta bestera hasi zen, mendi punta batetik bestera usain hura nondik zetorren bilatu nahian. Baina toki batera heltzen zenean, usaintzen jarraitzen zuen eta beste nonbaitetik zetorrela pentsatuz, haruntz eta honuntz hasi zen. Halako batean, neka-neka eginda, mendi tontor batetik harri batzuk mugitu eta erori egin zen. Lurraren kontra jo zuenean, animalia eder horri barrua lehertu zitzaion eta barrenetik harri usaintsu bat zuen poltsa atera zitzaion. `Usain' hura berak zeraman barruan eta ez zen sekula konturatu. Beti kanpora begira bere barruan zegoen zoriontasunarekin konturatu gabe. Usain ederreko harri hori `amizklea' da eta perfume garestiak egiteko erabiltzen da gaur egun. Ipuin indiar honek eginarazten didan gogoeta hauxe da: zenbat jende, gizon-emakume, adin guztietakoak, joaten diren mundu honetatik barruan daramaten benetako zoriontasunak ematen duen altxorra deskubritu gabel Guri ere horrelako zerbait gertatuko al zaigu? Altxorra behin non dagoen jakin ezkero bertara joateko atea irekiko digun `giltz' zuzena aurkitzea izango da gure eginbeharra. Kanpora begiratuz baino, nor bere barrura begiratuz egin behar den lana da.

Zuk ere, irakurle, altxor hori aurkitu nahi baduzu, jarri zaitez martxan, ez egon lotan, lan egitea zure esku dago. Horretan laguntzen duten talde asko daude. Galdetu, eskatu, bilatu,... zoriontsu izateko garaia duzu!

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barrak, Birrak eta Barreak



BaRREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
s' 943 74 41 12
Fublizitatea:
is• 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso
KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUDLIZITATEA Maitane Cid
MAKETATZAILEA Bea Ansola
ADNIINISTRAZIOA Amaia Martin
GERENTZ1A Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK Irati Agirreazaldegi, Ana Artetxe, Jose Mari Bastida, Mari Karmen Elorza, Maider Elustondo, Jon Eugi, Koldo Galdona, Aintzane Garate, Jon Garate, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo, Iñaki Jaio, KOKOE, Imanol Larrañaga, Nieves Loiola, Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea, Julian Segundo, Jon Suarez, Anjel Ugarteburu, lban Urizar, Miren Vallejo.
BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop, E.
TIRADA 4.000 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

fundazioa
fundacidn

44 DANOBAT

40 1 Go[iru




# Parke eolikoak: Esasoan eraiki ditzatela

Duela gutxi Karakate-Irukurutzetan eraiki nahi duten zentral eolikoari buruz irakurri nuen artikuluaren haritik, pare bat lerro idaztea erabaki dut.

Ez dut esandakoa errepikatzerik nahi, ezta politika energetikoaren arloan sartzerik nahi ere; nire asmoa ez da monumentu megalitikoez josita dagoen ingurunean airesorgailuak eraikitzeak izango lituzkeen ondorio negatiboak aztertzea.

Nori dago zuzendua energia hau? Norentzat izango da mesedegarria? Nor kaltetzen du?

Ingurugiroari kalte gutxiago egingo liokeen alternatiba bat aurkeztu nahi dut. Energia guztiek dute eragina ingurugiroan, `garbia' edo `alternatiboa' izan, eguzki energia, eolikoa edo geoterrnikoa izan. Eragin hau txikia (onargarria) izan daiteke, mikrozentralen kasuan bezala, edo aitzitik, onartezina, makrozentralen kasuan bezala. Parke eolikoei dagokienean, argitaratu diren artikulu guztietan argi geratu da zernolako kalteak sortzen dituzten. Norbaitek idatzi al du artikuluren bat elgoibartarrontzat izango lituzkeen mesedeei buruz? Argindarrean gutxiago gastatuko aI dugu akaso? Ez.

Dinamarka munduko lehen herrialdea da aerosorgailuen eraikuntzan. Aerosorgailuen teknologia eta erabilerari dagokionean puntako herrialdea da. Ba al dakizue non hasi diren parke eolikoak eraikitzen? ITSASOAN. Itsasoan barrena, hainbat kilometrotan, aerosorgailuak eraiki dituzte. Zein diren aldeko faktoreak? Asko eta asko, luze joko luke hemen denak azaltzeak. Kontrako faktorerik ba omen du. Hala ere, hara hemen baleko alternatiba, fidagarria. Ez gaitezen atzerakoiak izan. Politikoki eta teknoligikoki aurreratuak izan behar dugu eta epe ertain eta luzera begiratu. Denboraren poderioz zentral hauek zaharkitu egiten dira eta ingurugiroari egingo liokeen kaltea askoz txikiagoa izango litzateke itsasoan, gure bailaran baino.

Horregatik, Elgoibarko Udala lehenengo pausoa eman beharko lukeena dela uste dut. Biztanleen ongizatea nahi badu behintzat, proiektuaren kontra agertu beharko litzateke, gogor, gainera. Ezin dugu horrelako ingurune bat sakrifikatu baleko alternatibak egonda, nahiz eta gutxi batzuentzat kosto ekonomiko handia izango duen, baina gehiengoarentzat onerako izango da, eta zer esanik ez hain kaltetua dagoen ingurugiroarentzat.

Pentsa dezagun etorkizunean. Eskerrik asko.

Jon Azurmendi

BARRENek ez du bere gain hatizen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.
Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko.
Ez ahaztu datu hauek jartzea: **lzen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

## t1111111

• Herritar batek galdera hau bidaIi digu: "Ba **al du Udalak Kultur Etxearen atzean eta Pilarreko zubiaren ondoan dagoen lekuan zerbait teko asmorik?"**

Hirigintzako bulegora deitu dugu eta naomentuz dagoen bezala geratuko dela esan digute. **"Inguruko etxeak bota zirenean lekua txukundu, margotu eta garbitu zen. Epe laburrera ez dago beste ezer egiteko proiekturik.** Aurrerago, parketxo bat egiteko leku aproposa izan daiteke".



## KEXAK

• Emakume batek deitu digu "Merkatu **Plazako ezkerreko sarreran zenbait baldosa apttrtuta"** daudela esateko. "Joan den egunean emakume batek estropozo egin zuen eta txiripaz libratu zen. Benetan arriskutsua dago".

• Basarte kalean bizi den emakume batek deitu digu. Esan digunez, "asper-asper **eginda gaude gure auzoa guztiz baztertua dagoela ikusita. Bada urtebete bertan jendea bizi denetik eta gaur egun kontenedore ziztrin pare bat** bakarrik ditugu. **Aspaldi eskatu genituen paper eta beira kontenedoreak** baina oraingoz ez digute kasurik egin. Ez aI ditugu zergak ordaintzen? Horrez gain, **parkeko farolak aspaididanik daude argirik gabe.** Ilunpetan igo behar izaten dugu etxera. **Eta hori gutxi balitz, etxe inguruko berdeguneetan lurra harrotu eta gero, hortxe laga zuten,** batere kasurik egin gabe. IMH eta Errernintа Museoa hain txukunak izanik eta Mintxeta bera hain eder eta zainduta egonik, zergatik ez dugu bertako bizilagunok tratu bera jasotzen?".

# BAI, ESAN?





## Sebastian Gorrotxategi

**Sallobente Elkarteko Batzordeko kidea**

*Jakingo duzuenez, herriko hainbat erakunde Artazo baserria berreraikitzeko lanetan aritu da azken aldian. Azken ekitaldia San Anton Egunean, hilak 17, Kiroldegian antolatutako herri kirolen jaialdia izan zen. Orain arteko ekitaldien balorazioa eta batutako diru kopuruaren berri eman digu Sallobente Batzordeko kidea den Sebastian Gorrotxategik.*

**- Kasik 5 milioi pta. batu dituzue.** - Zehatz esateko, 4.941.633 pta. dira. Bi diru ituni nagusi izan dira: batetik, Mallorcara bidaiaren errifak eta bestetik, jaialdiak eta donazioak. Sallobente auzoko baserri bakoitzean errifa tako bat banatu genuen eurek saltzeko eta partikularrak ere ibili dira saltzen. Gainerako errifak batzordekoek saldu ditugu San Bartolome jaietako feria egunean, Arrate Egunean, San Lorentzoko txakurren lehiaketan, Markinan, Elosun, San Migeleko idi-demetan, Itziarren, Eibarren eta Gabonzahar egunean. Errifekin 2.790.000 pta. batu ditugu.

**- Jaialdiak ere antolatu dituzue.** - 4 jaialdi izan dira: San Lorentzoko txakur-lehiaketa, idi demak San Migelen, Gabonetako jaialdia eta San Antonetako herri kirolak. Honez gain, Sallobente Elkarteak, San Rokekoak eta EHNE sindikatuak dirua eman dute eta Edu Arrillagak `Herri baten Argia' liburuaren 50 ale eman zituen salmentarako. Kutxan eta Euskadiko Kutxan bi kontu korronte irekita daude eta erantzuna ezin hobea izan da. Hortaz, jaialdiak eta donazioak batuta, beste 2.151.633 pta. batu ditugu. Denera, lehen esan bezala, ia 5 milioi pta. jaso dira. Hala ere, gorabeherak egon daitezke diruari dagokionean, kontu korronteak irekita baitaude eta Elgoibarko Izarrak Sallobenten Santa Eske berezia egingo baitu Artazoren alde. Bestetik, Malloreara bidaiaren kostuak ere kontuan hartu behar dira.

**- Espero zenuten horrelako erantzunik?** - Artazo erre zenean prezedente bat jani nahi izan genuen: horrelako gertaera batean aurrean erantzuna eman behar dela. Horregatik jendearengara ailegatzea oinarrizkoa da eta baserritarrak, kaletarrak,... denak bildu behar dira. Gure asmoa hutsean geratuko zitekeen jendeak erantzun izan ez balu. Zoragani hartu gaituzte.

**- Anekdotak ere izan dituzue.** Bai, Elosun errifak saltzen nengoela adibidez, zoluak barnizatzen dituen gizon batek errifak erosi eta esan zidarr. `begita, hau da nire aurkezpen txartela eta zoluak jartzen ditut. Baserri hori eraikitzen denean, deitu eta doan jarriko dut zolua'. Momentuan hitzik esan ezinik geratu nintzen. Jendearen jarrera txalotzekoa da, dirua eman baino zerbait gehiago egin duzue denok. Dirua bezain inportantea da musutruk eta ixilean egindako lana. Asko eta asko izan dira laguntzen aritu direnak eta eskerrik beroenak, beraz, guztiei.



***ESKERTZA***

*1999ko urtarrilaren 12an, 75 urte zituela hil zen*
*CARMEN ZULAIKAren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola*
*hileta elizkizunetara agertu izana.*



# eztia

## sendagai YATURALA




*Hotzak inguratu gaituen honetan askoren eztarriak ere lakartu egin dira. Baina horretarako badago erremedio on bat : Eztia, erleek ematen diguten sendagaia. Intsektu hauen ziztadak direla-eta sarritan kexatzen garen arren, beraiengandik lortutako produktuak gogoz hartzen ditugu. Eztiaren atzean erleak ezezik erlezainak ere badaude eta Elgoibarren topatu dugu langintza horretan aditua den jendea. Neguan, erleek lan gehiegi ematen ez duten garaian, gure artera ekarri ditugu horietako hiru erlezain, herrian gehiago diren arren, ordezkaritza txiki honek antibiotiko natural honen inguruko zenbait xehetasun emateko.*


BENITO FERNANDEZ

"Bizi daiteke eztiaren salmentatik baina oso lan lotua da"

Benito Fernandez igeltseroct da eta erlezaintza hobby bezala dauka. "Aitonarekin ikasi nuen, beraz, familiatik datorkit zaletasuna. Piskanaka ikasi nuen erlezaintzari buruz dakidana eta idatziak irakurriz nire jakintza handiagotzen saiatu naiz". Fernandezek eztia egiteko ditu erleak eta argizaria gorde egiten du abaraskak bernizeko. Eztia batzutan saldu egiten du, baina beti ere bere kontura, asko ez daukalako. Dendaren batean ere jarri izan du noiz edo noiz salgai eskatu diotenean. Hala ere, bere ontziek ez daukate inolako etiketarik, "oraingoz denborarik ez daukat eta gainera, ezti gutxi egiten dudanez, ez ditut etiketatzen". Benitok ez du inoiz pentsatu erlezaintza ofiziotzat izatea. Hiru urte ban-u jubilatzeko asmoa dauka eta orduan denbora gehiago eskainiko omen die erleei. Bere abarasketatik bi motatako eztia ateratzen du: bertakoa eta Galiziakoa, ilunagoa. Hala ere, eztia naturaia bada, aldaketa bakarra zapore eta kolorean dago. Bere esanetan, erleek ez dute zainketa berezirik eskatzen, "noizean behin begirada bat botaizearekin nahikoa da, berroasia edo beste gaixotasunen bat izan ez dezaten". Berroasia erlekumeetan ugaltzen den akaro bat da. "Udaberrian, erlekumeak ateratzen direnean, ia egunero joaten naiz erleak ikustera, boina badira garai batzuk agian bi hilabete joan gabe pasatzen ditudanak, esaterako orain, neguan". Bere ustez, "bizi daiteke eztiaren salmentatik baina oso lan lotua da eta horretarako guixienez 200 erlauntza eduki behar dira". Fernandezek orain 80 erlauntza inguru dauzka, 20 bereak eta gainontzekoak beste batzuek zaintzeko utzi dizkiotenak.

## EZTI-TXANPAINA




Antonio Marquez jaiotzez Cordobako Fuenfeovejuna herrikoa den arren, duela 36 urtetik barren bizi da. Erlezaintzaren mundua txikitatik ezagutu zuen, bere aita oso erlezain ona barta. Hala ere, airtortu digunez, "Euskal Herrira iritsi ninfzenean, uste nuen hemengo hezetasunarekin ez zela erlerik egongo eta, lehendabizi ikusi nituenean asko harritu nintzen". Erleak bere alabak balira bezala zaintzen ditu eta berak ezin duenean, beste norbaiti lagatzen dio beraien ardura. Eztiaren gaia ez zaio gehiegi interesatzen baina "joan zen urtean osasun erregistroa eta etiketak jarri genizkien ontziei eta orain gero eta estimazio handiagoa dauka eztrak, gehiago saltzen da". Erlezainen Elkarteko bazkidea da Marquez eta Elkartearen bitartez Usurbilen jarri dizkie etiketak ontziei, guztiak euskaraz. Antoniok, eztiaz gain, erleek ematen dutenetik beste produktu baizuk ere atera ohi ditu. Esaterako, ezti-ura, hemen orain gutxirarte ezagutzen ez zena, eta ezti-bmnpaina. "Produktuok zenbait feriatan aurkeztu nituen eta izugarrizko arrakasta izan zuten. Txanpaina agortu egin zen eta orain beste 300 litro egiten ari naiz". Erlezaleen Elkartearen bitartekaritzaz produktu hauek eztia bezalaxe etiketatzea nahi dute, ondaren komerzializatzeko. "Soraluzen erakutsi genituenean pertsona bat bcanpanarengatik 1.000 pezefa ordaintzeko prest agertu zen, baina saltzeko ez geneukanez, agertu zuen interesarengatik botila bat oparitu nion". Txanpainak ez omen du lan handirik ematen. Ezti-urak, ordea, bai. Eztia eta uraz gain, fruituak nahastu eta denbora luzean egosten eduki behar dira. Produktu goxo hori lortzeko lana gogor egin behar denez, Andaluzian eztia baino garestiago saltzen da, hemen ordea, oraindik oso ezaguna ez denez, ezin da horrelakorik egin, hala ere probatu duenak atsegin handiz hartu du. Jakiak ezezik argizaria ere lortzen da eta horrekin, besteak beste, pomadak egin daitezke. Nahiz eta gustatuko likaroken, ez zaio inoiz burutik pasa hobby hau ofizio bihurtzea. "Erleak bere kabuz moldatzen dira eta asko produzitzen dute, berez ez du lan asko eskatzen, baina eztia biltzeko orduan bi edo hiru lagun behar dira eta ateratzen denarekin familia bat mantetzeko nahikoa da". Baina erlezaintza bizibide bihurtu daiteken lan bat da. Izan ere, "probututa dago hemengo eztia garestiago saldu daitekeela, azken finean, kalitatea ordaindu egin behar delako eta hemengo eztiak maila altua daukakko".

> "Erlezain Elkartearen bidez, etiketak jarri dizkiet potoel"

## IRAKASLEEN SENDAGAI

Irakasle honek, aurreko biek bezalaxe, hobby bezala dauka erlezaintza. Jesus Mariren amonaren aitak erleak zeuzkan eta berak horri 6uruz baserrian entzunda, piskanaka afizioa hartu zuen. Ondoren, "aitak baratza zeukanez, bertan erleak jartzea erabaki genuen polenizazioa egiteko". Eztigintzari buruz galdetzean, esan digu, berak denborarik ez daukanez, panalak eztitegi batera eramaten dituela eta bertatik bidoi handi batean ekartzen dizkiotela, ondoren ontzietan sartzeko. "Eztia lagunen artean eta familian banatzen dut eta gero etxean bertan ere kontsumitzen dugu. Irakasleok sarritan izan ohi ditugu eztarriko arazoak eta eztia hartzeak on egiten digu". Afizioa baino ez denez, zazpi erlauntza dauzka eta ez du gehiago jartzeko asmarik. "Nik ez diet denbora gehiegirik eskaintzen, orain neguan batere ez. Udaberrian, berriz, tablilak jarri eta garbitzeko behar duten denbora eskaintzen diet". Elgorbarren eta bailaran asko dira erlezaintzan ibiltzen direnak eta Jesus Mariren ustez, interesgarria izango litzateke denak bildu eta lokal bat izatea inguruan, "horren atzetik gabiltzan arren, ez dakit lortuko dugun".




> "Eztia lagunen artean eta familian banatzen dut"

Elgoibarko hiru erlezale hauen hitzak jaso ondoren ikusi dugu erleek beren denbora librea betetzeaz gain, negu garaion horren sarritan hcrrapatzen diren katarroak sendatzeko antibiotiko naturala ere eskuratzen dutela, eztia hain zuzen.

Irati Agirreazaldegi

# Ba al duzu domekan Mintxetara joateko asmorik?



**BITORIANO GALLASTEGI**
**61** urte, baserritarra

Ez, guk baserrixan nahikua lan eukitzen dou eta holakuetara juteko astirik ez, da egoten. Igual telebisivan ikusiko dot zeozer.



**MARIBI GONZALEZ**
45 urte, dendaria

Horixe baietz? Zahatoa eta ogitartekoa hartuta joaten gara urtero. Asko gustatzen zait eta txingorra egin arren, han izaten naiz.



**ROSARIO CACERES**
52 urte, etxekoandrea

Ezinezkoa izango zait, lanez gainezka nabil eta heharbada ez dut tartetxo bat izango ezta telebistan irudiren bat ikusteko ere!



**ANTONIO BALLESTEROS**
50 urte, mekanikoa

Aurten ezingo dut joan baina urtero joan izan naiz. Asko gustatzen zait krosa eta Mintxetan are gehiago. Ikusgarria izaten da!



**DORI GOMEZ**
25 urte, administraria

Eguraldiaren arabera. Euria egiten badu erosoagoa da etxean lasai-lasai telebistaz ikustea. Halere, gustatzen zait Mintxetara joatea.



**MIGUEL LARRAÑAGA**
56 urte, inmobiliariako Iangilea

Ez daukat asmorik ez bainaiz kros zalea. Dena dela, gustatuz gero, hobe da Mintxera joan etxean telebistan ikusi baino.





- Kontabilitate
- Lan

Fiskal

URKIDI
AHOLKULAR1TZA
ITT ERCOS ASEGUROAK

Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Faxa:
943 74 1 8 91

Cordon,Vilarchao, c.b.
DEKCDRAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
San Roke , 7 behea. Tek 943 74 28 74-74 05 70

# ISPILUARI BEGIRA



Javier Alvarez

**Informatikoa**

- *Ordenagailuekin engantxatuta* al zaude?
- Egon izan naiz eta batez ere ordenagailuetako jolasekin. Behin goizeko 3:00ak arte egon nintzen jolasten.
- "Monoa" pasatu al duzu sekula?- Horrenbesterako ez.
- Ezagutuko al dugu sexu birtuala? Egin dira saiakerak eta litekeena da egunen batean posible izatea.
- Noren sareetan eroriko zinateke gustura?
- Nire neskarekin nahikoa dut.
- Zein itsasotan nabigatuko zenuke?
- Ez naiz sekula itsasontzian ibili baina gustatuko litzaidake munduko edozein bazter ezagutzea.
- Zein birusen kontra borrokatuko zenuke?
- Egun munduan dauden gatazka guztien birusaren kontra.
- Zer da aurrerakuntza? - Gizakion, gizartearen eta, azken batean, munduaren garapena.
- Noiz idatzi zenuen azkenekoz eskutitz bat eskuz?
- Ez zait sekula gustatu idaztea eta 13 urte nituenetik dena idatzi izan dut ordenadorez.
- Eta noiz bidali duzu azkenekoz E-mail bat?
Ia egunero, nire lanerako ezinbestekoa baita. Oso aurrerakuntza baliotsua izan da.
- Makinak ez al zaizkigu nagusituko?
- Entzun dudanez japoniarrak katu-robot bati gizakien zelulak sartu dizkiote bere kabuz pentsatzeko gai izan dadin. Batek daki nora iritsiko garen!
- Asmakizunik onena? - Niretzat ohea! Pena da,nahi beste denbora ezin dudala eman bertan.
- Pertsona ordenatua al zara? - Normalean bai, baina lana pilatzen zaidanean paperak ere pilatzen dira mahai gainean.
Zure bizitzako zein irudi izoztuko zenuke?
- Motorzalea naiz eta sekula ez zait ahaztuko Alex Crivillerekin korritu nuenean pista batean.
- Zein pelikula nahi zenuke bizitzea errealitatean?
- Pelikulak pelikulak dira, guk bizi behar dugun errealitateak ez du zerikusirik.
- Zer eskatu diozu urte berriari?
- Lana eta osasuna izatearekin konformatzen naiz eta arlo pertsonalean iazkoa bezain ona bada, ondo.


jOit;b4Caloai

(Txema)

- **Mota guztietako pintura eta enpapelatuak.**
- **Zoluak, maketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.**

San Bartolome, 28-1 ezk
Tel: 943 74 12 55
Mobila: 929 44 23 14



TEGEN MANKOMUNITATEA

DEBABE" UDAL EU

Urtarrilaren 19tik otsailaren 5era

| | GOFZEZ | ARRATSALDEZ |
|---|---|---|
| 1. urratsa | 9:00-11:00 egunero | 14:30-16:30 egunero |
| 2. urratsal | | 14:45-16:15 egunero |
| 5. urratsa | 9:00-11:00 egunero | 15:00-17:00 egunero |
| 9. urratsa | | 15:30-17:30 egunero |
| E.G.A. | | 17:00-19:00 astean 3 egunetan |

Natarroa Plaza, 2• Tel: 943 74 27 31- Bulego ordutegia: 9:00-13:00/ 14:30-18:30

## • Txankakuaren zozketako zenbaki sarituak

Txankakua Elkarteak 150.000 pta.ko hiru eros-txekeen zozketa egin du. Hauek dira zenbaki sarituak:
**1- 19.810**
**2- 15.077**
**3- 05.631**
Ordezkoak, berriz,
**1- 58.162**
**2- 70.203**
**3- 46.891**
Zenbaki bakoitzaren jabeak 50.000 pta. jasoko ditu.

## • Artazoren aldeko errifaren zozketa

Sallobente Batzordeak antolatutako Mallorcara bidaiaren zozketa egin zen joan den domekan Kiroldegian izan zen herri kirolen jaialdian. Zenbaki saritua **10.442** da eta esan digutenez, urriaren 18an San Migeleko ididemetan saldu zen. Zozketaren saria 2 lagunentzako Mallorcara bidaia da, 8 eguneko egonaldian. Zenbaki saritua aurkezteko azken eguna otsailaren 17a izango da.

# Gurutze Gorriak ez du Jaurlaritzarekin adostutako larrialdiko zerbitzua beteko

Hala ere, herritarren behar guztiek erantzuna izango dutela ziurtatu dute

Elgoibarko Gurutze Gorriko presidentea den Mila Picazak aditzera eman digunez, "aurrerantzean, ez dizkigute SOS DEIAK-etik 112 zenbakian jasotzen diren larrialdiak pasatuko, ez baitugu akordio ekonomikorik Iortu Eusko Jaurlaritzarekin". Hala ere, argi laga nahi dute edozein herritarrek, edozein ordutan eta edozein unetan egindako deiari erantzungo diola Elgoibarko Gurutze Gorriak. "24 orduz gaude Aita Agirreko egoitzan edozein eskariri erantzuteko". Orain arte Gurutze Gorriko anbulantzien erdiak 5 milioiko dirulaguntza jasotzen zuen eta "horrekin ezinezkoa zen zerbitzu guztia betetzen jarraitzea".



Argazkietan bolondres sarituak agertzen dira Gurutze Gorriko ordezkariekin.

**Bolondres sarituak**

Azken 8 urteotan bezala, Elgoibarko Gurutze Gorriak `Bolondresaren Eguna' ospatu zuen San Anton Egunean, hilak 17. Bazkari baten bueltan 40 bat lagun bildu eta aurten estreinakoz, uztailaren 15ean 10 urte beteko dituztela-eta, urteko bolondres onenak saritzea erabaki dute. "Aurten Iehen aldiz antolatu dugu eta hemendik aurrera urtero egingo dugu". Horrela bada, Gurutze Gorriko bolondresek Aitor Itturikastillo lankidea aukeratu zuten bozketaz. Gurutze Gorriko Elkartetik kanpoko laguntzailerik finena, berriz, Iñaki Insausti Jubilatuen Etxeko presidentea izan dela erabaki zuten.



## Pilar ikastetxeko ikasleak topaketetan

Pilar ikastetxeko DBHko 4. mailako ikasle talde honek bi eguneko topaketetan parte hartu zuen duela zenbait aste. Bi egun pasa zituzten Aretxabaletako Urkuluko ingurunean. Argazkian ikus daitekeen bezala, irteera egin zuten Kurtzebarri mendira "haize bolada hotzak jasan behar izan genituelarik".

## Gestio Eskolako 2. promozioko graduazioa

Argazkikoak Gestio Eskolako bigarren promozioko ikasleak dira. 30 bat inguru dira guztira eta abenduaren 22an izan zuten graduazio ekitaldia IMHko ikastetxean. Gillermo Garate alkatea, Iriaki Arriola Gestio Eskolako Patronatuaren presidentea, Antonio Cancello MCCko presidentea eta Jose Mari Ulazia Gestio Eskolako zuzendaria izan ziren ekitaldian.



# SAN ANTON JAIAK 99

## Herriko Antzokiak gainezka egin zuen Lourvierrs-en saioan

### Kultura Sailetik esan bezala, "ekintza guztiek oso harrera ona izan dute"

*Joan den ostiralean hasi eta astelehenera bitartean, San Anton jaietako ekitaldiez gozatzeko aukera izan dugu elgoibartarrok. Kultura Sailetik esan digutenez, "ekitaldi guztietan jende asko izan da".*

Ostiralean, hilak 15, Lourvier's taldeak sekulako jendetza bildu zuen Herriko Antzokian. 404 Iagunentzako lekua dauka antzokiak eta 200 lagunek baino gehiagok ez zuten sartzerik izan. Hirukote donostiarrak saio polita eskaini zuen eta ikuslegoak ondo baino hobeto erantzun zuen barre algara eta txalo sorta luzeekin.








Zapatu goizean, hilak 16, Filatelia Elkarteak prestatutako erakusketaren irekiera ekitaldia izan zen. Aurretik, Elgoibarko Txoko Taurinoko presidentea den Jose Luis Aranak oroigarri bat eman zien Haritz Dantzari Taldekoei 25. urteurrena bete berri baitute. Ondoren, Kultur Etxeko erakusgelan, Euskal Mendizale Federazioari eskainitako erakusketa inauguratu zen. Pako Iriondo Federazioko presidentea eta J. I. Sarasua idazkaria, ESEBA Filatelia Federeazioko presidentea, Gillermo Garate alkatea, Filatelia Elkarteko kideak eta herri askotatik etorritako erakusleak izan ziren bertan.

Astelehenean, hilak 18, Ertzantzaren Bandak kontzertua eman zuen Herriko Antzokian eta haurrek jolas-parkean tarte ederra pasatzeko izan zuten goizez eta arratsaldez. Kultur ekintzekin amaituz, Taupada antzerki talde elgoibartarrak `Mari Sorgin' azken lana taularatu zuen Herriko Antzokian. Txotxongilo saioa izan zen eta haurrek ondo baino hobeto pasatu zuten. Asteazkenean, Taupadakoek beste bi saio eskaini zituzten herriko ikastetxeetako haurrentzat.







# Enpresa berriak ari dira eraikitzen Lerunen eta inguruko lurretan

## Lerunen Transportes Gallastegi kokatuko da eta Lagun-en ondoan Uniato supermerkatua

Enpresa pribatu ugarik, Elgoibarren bere lekua hartu nahian, San Pedro eta Leruneko tetTenoetara jo dute. Eibarko Ojmar enpresa, Bernardo Ecenarroren biltegi inteligentea delakoa, eta Lagun lantegiaz gain, laister beste hiru enpresa berri kokatuko dira bertan: Elgoibarko Mancisidor lantegia, Unialeo supermerkatua, hasierako fasean dagoena, eta Leruneko futbol zelai zaharrean janiko duten Transportes Gallastegi gan̄aio enpresa, jadanik martxan dagoena. Enpresa hauek udara bukaerarako amaituta egon daitezke.

Lagun enpresak ere lantegi ondoan dauzkan terrenoetan enpresa handitu edo aldaketak egiteko asrnoa azaldu du, baina hau proiektua baino ez da. Industrialdean eraikin berriak egiteaz gain, ingurua txukuntzea da beste helburuetako bat. Honela, Lemn gainean hasi eta enpresetan zehar pasealeku bat egingo da. Bertan pa.siatu, korrika egin edota bizikletan ibili ahal izango da argiztapen egokia jartzen denean. Era berean, San Pedroko lurretan errekak sortu ohi dituen uholde arazoak arintze aldera, ibaiaren inguruan zenbait hobekuntza egitea aurrikusita dago.





*Lerungo futbol zelai zaharra guztiz itxuraldatuta dago enpresa berriak eraikitzeko obrak direla-eta.*





KAROBI
TeL 943 74 06 37
San Frantzisko, 37

karSiano
San Franzisko 12-14 -Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome,

OLFISO TABERNF1
-EGLINEK 0 MENI111K-
-GfIVEZ-
Ustiral eta larunbatetan
menu ekonomikaak
Olaso industrialdea, 15
Tel: 943 74 31 85
ORMITEGI1
Asteleherielik astiralera 7:00-22:30
larunbatetan 9:00tik aurrera

#Anchtistegul s.a.
ZERAMIKAK
Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8 behea
83 P. K. - 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 06 92
Faxa: 943 74 37 11
Biltegia:
Olaso induslrialdea
Olasope, 5
20870 - ELGOIBAR
**Tel:** 74 20 38 - 74 23 71

# Txiki BARREN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 49. GEHIGARRIA

AgY

ia4

10

let



Abenduaren 17an bi eguneko irteera egin zuten Mendaroko San Jose ikastolako ikasleek Aiara. Goizeko 10:00ak aldera iritsi eta Sagastizabal baserrirako bidea hartu zuten. Bertan bazkaldu eta gero, museoa ikusi zuten. Museoan zenbait ariketa egiteko aprobetxatu eta arratsalde partera Amezketalerdira joan ziren lo egitera. Hurrengo goizean Pagoetako mendi altuenera igo ziren eta bazkaldu ostean, autobusa zain zuten lekura jaitsi ziren Mendarora bueltatzeko.

## 7~a

Emakume miope bat hegazkinean eserita dago, leihatilatik begira. Zera esaten dio ondokoari:
— Begira zenbat jende han behean! Inurriak dirudite!
— Izan ere, inurriak diral -erantzuten dio besteak-. Hegazkina ez da oraindik aireratu.



41'Mr ?"' f.-11 Ir

# Jakitunen eskutik

## Ikusmena

kusmena oso garrantzitsua da pertsona guztien bizitzan, horregatik, komenigarria da noizean behin kontrolatzeo. Adituen esanetan, haurrak 6 hilabete eta urtebete bitartean dituenean egin behar da ikusmenaren lehen azterketa.

Hala ere, etxean bertan egin ditzakegu zenbait ariketa haurraren ikusmena ana den jakiteko. Bi ariketa hauek umeak hiru hilabete dituenean egin behar dira.

Lehenengo ariketan, argia duen objeturen bat (linterna, adibidez) mugitu behar dugu haurraren aurpegiaren aurretik. Begiek objetuaren norabidea jarraitzen badute arazorik ez dagoela esan nahi du, baina zerbait arraroa egiten duela ohartuz gero, ondo kontrolatu, estrabismo kasuren bat izan daiteke eta. Oso garrantzitsua da objetua argiduna izatea baina soinurik ez ateratzea, bestela, ez genuke jakingo haurrak argiari edo soinuari jarraitzen dion.

Bigarren ariketan, umea argia duen zerbaiten aurrean jarri behar dugu eta ea begi-niniak txikitzen diren konprobatu. Begi-ninia irisaren erdian dagoen puntu beltza da. Ninia txikitzea seinale ona da argiaren aurrean ondo erreakzionatzen duela adierazten baitu.

Edozein modutan, ondoren aipatuko ditugun seinaleetcttik bat edo beste igarriz gero, adi

disdiratsuen aurrean, eguzkiaren aurrean adibidez, begiek negar egiten dutenean.

,vBegiek alboetara mugimendu azkar eta inkontrolatuak egiten dituztenean Ilnistagmo" izenez ezagutzen dena izan daiteke. Lehen hiru hilabeteetan gertatzen da eta haurrak objetu batengan fijatzeko arazoak dituela adierazten du.

,7Argira begiratzean mantxa zuri bat ageratzen bada begic:m, kristalinoan opakotasuna dagoela adieraz dezake.

,jBegia estrabikoa denean aztertu egin behar da. Begirada estrabikoa haurrak zazpi hilabete izan arte onartzen da, baina noizean behin gertatzen bada bakarrik. Sarri errepikatzen bada, berriz, arazoren bat dagoela adieraz dezake.

**Iturrio: "Mi bebe y yo" oldizkaria.**

## Zer daukazu Tfa~«.... buruz?



(44,e44-4 Watheito L414- ,e,k.aeluo

jmtamix, ZU,k.

ASEL UNANUE, 7 urte



aute~tal,e ‹ta. JoJeak (44,e4"el

Ivialte4 444,2, 14941,41, 4444' 4,4 le/11) (//k041,444' €oe/K dit 4a.

MIRARI OLAZABAL, 9 urte



plJa 164,1a 44-ko emv.4-ie4-y 1,143,t4

Ummilaka ,e4aW1.1,e4".

ZIGOR ARENILLAS, 11 urte

ehol\&«1*,&kkkkkkokkkkkklkkkk



# Galde debende

1. Zer eskatzen diozu urte berriari?
2. Zein da zortea ematen dizun zenbakia?
3. Zer izan nahi duzu handia zarenean?
4. Zein kolorez margotuko zenuke Mendaro?
5. Zein da gehien baloratzen duzun eskubidea?
6. Nork aukeratzen du zein arropa jantzi?
7, Gehien gustatzen zaizun iragarkia?
8. Zer da zoriontasuna?



JOISA,I1'1AN
JIJUIEC
12 urte

1. Urtea ondo pasatzeo.
2- Bat zenbakia.
3- Hegazkin pilotoa.
4- Marroiz eta urdinez.
5- Bakea,
Amak edo nik.
Futbolarena.
8- Pozik egotea.

LOLLA
LIASIC
S urte

1- Ezer ere ez.
2- Bederatzia.
3- Erizaina.
4- Berdez eta zuriz.
5- Bakea.
6- Amak.
7- ETBko Gabon kanta.
8- Olentzero eta Erregeak etortzea.

## Zer da.. s~-ot

COVISA IL IZALLALDIE C UL VIE



Beti Erregeak etortzea eta autoak ekartzea.

NfOEA 711131ELLIMENTEL1A C urte



Etxe bat edukitzea pistinarekin eta ordaindu gabe.

SCLAVA ULLESILS ULYTIE



Nire anaia sendatzea eskursiora joateko. Nire urtebetetzea izatea ere zortea da.

LISLIATZ MIUGILLUZA S urte



Neretzat zortea BARRENen ateratzea da.

MALKIEL IDORIU 110 MIL



Zortea da zuk neska bat maite duzunean eta neska horrek zu maite zaituenean.

ION 147KAISO 10 urte



Ari keta bat ez duzunean ulertzen, edozer ipini eta ariketa hori ondo egitea da zortea.

**ERANYZUNAK: 1-** Kalkulagailua, **2-** Joango al zinateke ilargira?, **3-** Madaria eta **4-** xaboia, ispilua eta otsaila.

11,

z!ou oueppx4
1!uoz! ouallo6n
l!lotepues nowoH

uezpagui loe4seci
ueziopio
z!ou iap acio6uale
1!.tezio
1!.iauno z!ou

rzpiopoci uep JeZ
ouo upsn
'znpuel ouppz
np uezpos osn



n131111Z11111:11111511 **4.**

**PlPeincl np ze nwful upz** **3.**





„uoruez 'o6op
!iruan oso rugu!og
op onsirniswo oso nta
ue4owe onrippg zg„

L L

**vionian**

•„alpp!DzEi olrijolsn6
Palsmp uap Dopiou
Drapaci 'Ll0,111) nlprui
oianp ouiJoj ualooualoid
op opoti
nurnir vaurti log„

94An **Z**
**YN3991111110V NOI**



C.

**nilappla AOZ** **2.**

unDq op **leZ** **1.**

# inimiusu zieze losodruoquaa

*Nieves Maidagan Barrenetxea izango da Eskuz taldeak antolatu duen errestaurazio ikastaroko irakaslea. Otsaila eta martxoa bitartean errestaurazioaren oinarriak irakatsiko ditu Nievesek. Deban bizi den eibartar honek Madrilen egin zituen ikasketak, Arte Aplikatu eta Ofizio Artistikoen eskolan, hain zuzen ere.*

NIEVES Maidagan

# "Errestaurazioa modan ari da jartzen"

**Noiztik zabiltza errestaurazioaren munduan?**

- 1983an hasi nintzen ikasten Madrilgo Arte Aplikatuen eta Ofizio Artsitikoen eskolan. Bost urteko ikasketak egin eta gero, errestaurazioari buruzko beste bi ikastaro egin nituen. Profesionalki, 1989az geroztik esan daiteke nagoela sartuta errestaurazioaren munduan.

**—Nolakoa izaten da altzariekin egiten den errestaurazioa?**

- Normalki jendeak altzariak mantentzea atsegin du. Errestaurazioak altzari zaharren transformaketa dakar. Altzaria zenbat eta hobea izan, transformazioa orduan eta txikiagoa da. Altzari zaharrekin batez ere arotz lana egin behar da.

**—Zein ezberdintasun dago altzari zahar baten eta antzinako altzari baten artean?**

- Antzinako altzariak benetako balioa du. Ezekonozimendua izan duen norbaitek eginak dira, ongi landutako altzariak. Altzari zaharrak, berriz, guztiok etxean ditugun altzariak dira, XX. mendekoak, 40 eta 50 hamarkadetakoak. Hauek egur trinkoz eginak daude eta gaur egungo altzarietan ez da horrelako egurrik erabiltzen.

**—Zein materialez egindako objetuak berrituko dituzue ikastaroan?**

- Gehienbat altzari zaharrekin arituko gara. Jende gehienak du etxean errestauratu beharra duen aitzariren bat. Orokorrean pinua, haritza, gaztainondoa eta antzekoak izaten dira. Ez dut uste inor etorriko denik benetan ona den altzari bat errestauratzera.

**—Errestaurazioa teknika baino gehiago al da?**

Teknika arotzaren lana da edo ebanistak lanari ematen dion amaiera. Altzariak egin eta errestauratzeko teknika beretsua bada ere, badago alderik. Batzuek, nahiago dute ez igartzea altzaria errestauratuta dagoela, beste batzuek, aldiz, bai. Artean gertatzen den bezala, artisautzan ere bakoitzak bere gustu eta ikuspegi berezia du. Ikastaroan, errestaurazioaz gain birziklaia ere landuko da. Esaterako, norbaitek altzari baten kolorea aldatu nahi badu bere estiloa emenaz, hor birziklapen lan handiagoa dago errestaurazioan baino.

**—Ba al dago tradiziorik inguruotan gai honi dagokionean?**

- Ez dago, baina azken aldian modan jartzen ari da errestaurazioa. Izan ere, altzari zaharrak gero eta gehiago erabiltzen ari dira dekorazioan, pieza zahar eta modernoen arteko konbinaketa... Beraz, errestaurazioa gero eta beharrezkoagoa da altzariak ondo mantentzeko.

**—Zer landuko duzue ikastaroan?**

- Oinarrizko maila emango dut bi hilabetez. Gero, jendeak nahiko balu, ikastaro sakonagoa emango genuke. Arotzen langintzaren oinarriak irakatsiko ditugu eta altzariak nola konpondu.

**—Zer harrera espero duzue jendearen aldetik?**

Ez dakit. Orain arte hiri handietan ibili izan naiz eta ez dakit hemen zer erantzun izango duen. Baina, esan dudan bezala, errestaurazioa modan dagoenez litekeena da jende dexente animatzea.

**Arnaitz Gorriti**



# SARI BANAKETA EKITALDIA

## TXAN HANDIA magoarekin




Urtarrilaren 28an, osteguna
Arratsaldeko 19:00etan
Kultur Etxean

Antoiatzaiilea: ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea

Laguntzaileak:
ELGOIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



# Txandakako Enpresa Injinerutza

Enpresarekin lanean garatutako lanbide proiektua.
Lan kontratua lehen egunetik.

**Bilera informatiboa**

- Datorren urtarrilaren 29an, ostiralean, bilera informatiboa izango da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azalduko direlarik.
- 18:30ean Erreminta Makina Institutuko instalazioak bisitatuko ditugu eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.

1999/2000 ikasturtea

- Erreminta Makina Institutua
San Roke Auzoa, 1
20870 Elgoibar
- Tel: 943 74 41 32
Faxa: 943 74 41 53
E- maila: ingenieria@fmn.es
- Ordutegia:
08:00-13:00
14:30-17:30

ERREMINTA MAKINA INSTITUTUA

cesi aquitaine poitou-charentes







Argazki hau 1947 urtekoa da. Begoña Juaristik ekarritakoa da eta esan digunez, San Lorentzon dago aterata, Manuel Sodupe trikitilaria zenari egindako omenaldian. Argazkian agertzen diren guztiak hilda daude.

Hona hemen nor diren:

Zutik: **Juanito Aizpitarte, Justo Juaristi `Artazo', Valerio Arriola** eta **German Uriguen**

Eserita: **Justo Arriola, Manuel Sodupe (omendua)** eta **Don Antonio Arrillaga medikua.**

Trikitilari handia izan zen Manuel, `Gelatxo' goitizenez ezagunagoa zena. Izan ere, San Lorentzo bailarako Gelatxo baserrian jaio zen Manuel 1888an. Gipuzkoa eta Bizkaia osoan jardun zuen erromerietan, kalejiretan eta hainbat ekitalditan jotzen; errepertorio handia eta zabala zuen. Jakingo duzuen bezala, iazko uztailean, omenaldi berezia egin zitzaien Gelatxotarrei.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Franizisko 49-1 Te1: 943 74 11 89

Mandiola S.L. Egurrak
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 943 74 12 56 (mobila) 909 53 23 83

# ESK@LARTEKO KIRALAK

## AGENBA
Urtarrilak 23
9. jardunaldia

**FUTBOLA (Mintmetan)**

❑ **Alebin neskak-mutilak** -

A ZELAIAN

**9:15** Hamaika Txiki - Ikastola **A**

**10:00** Hamaika Neskak Ikastola **B**

**10:45** Mendaro **B** Herri Eskola

**11:30** Pilar B- Goizeko Izarra A

**12:15** Ikastola - MIkel **Deuna A** (Nes.)

**E Alebin neskak-nnutilak** -

B ZELAIAN

**9:15** Ikastola C- Pilar B (Nes )

10:00 Ikastola C- Mendaro **A**

**10:45** Ikastola B- Mikel Deuna B

**11:30** Pilar **A** Goizeko izarra **A**

**12:15 Pilar A-** Goizeko Izarra B (Nes.)

**ESKUBALO1A (11rastaian)**

**Benjamin muttlak** -

**10:00** Ikastola **A-** Pilar **A**

**10:30** Pilar **B- Mendaro A**

**11:00** Herri Eskola **B-** Ikastola **B**

**11:30** Ikastola C Herri Eskola **A**

**11 Benjamin neskak** •

**12:00** Ikastola A- Pilar **A**

**12:30** Ikastola B- Ikastola C

**ESKUBALOIA (kirnblegian)**

**19 infantil neskak**

**9:00** Ikastola B - Pilar B

**9:45** Ikastola **D** - Ikastola **E**

**11:15** Ikastola A - Jauja

**12:45** Ikastola C Pilar **A**

▪ **Infanlil mutilak** ▪

**10:30** Pilar B- Pilar A

**12:00** Jauja Ikastola

Artazo Baserriaren Aldeko Herri Kirolen Jaialdia

# Puntako kiroliariak baina ikusle gutxi

Aurreko domekan, hilak 17, Artazo baserriaren aldeko azken ekitaldia izan zen. Udalak, Kalamua Elkarteak eta Pedro Mari Egafia `Mintxeta'k prestatutako herri kirolen jaialdi erraldoiak ez zuen merezitako erantzunik jaso ikuslego kopuruari dagokionean. Antolatzaileek adierazi bezala, ¯200 sarrera saldu ziren, aukeran gutxitxo. Ez daldgu zergatik joan zen horren jende gutxi, oraindik ez diogu fundamentuzko esplikaziorik topatu. Jendea jakinaren gainean zegoen baina...". Kirol kontuetan jaialdia puntakoa izan zen, parte hartu zuten kirolariak ere puntakoak baitziren. Perurenak sekulakoak egin zituen. Esaterako, 100 kiloko harri biribilari 20 buelta eman zizkion lepoan. Elgoibarko Mintxeta gazteak maila onean datorrela erakutsi zuen. 50 kiloko zilindroarekin 24 jasoaldi egin zituen. Bestalde, Aiako Hodei Izetak txukuntasuna erakutsi zuen 45 kiloko kubikoarekin. Giroa alaitzen, Ziarda eta Meabe bertsolariak eta Oihane eta Eneritz trikitilariak aritu ziren.





*Perurena aita-semeek eta Mintxeta gazteak erakustaldi polita eskaini zuten.*

## Balizola elgoibartarrak galdu egin zuen San Anton Pilota Txapelketako finaletan

Aurreko ostiralean, hilak 15, Lagunak Pilota Eskolak antolatutako San Anton Txapelketako finalak jokatu ziren Ikastolako frontoian. Elgoibartar batek txapelketa honetako finaIera iristea lortzen zuen estreineko aldia bazen ere, ez zuen txapelketa irabazterik izan. Balzola elgoibartarrak promesa mailan jokatu zuen Laskurain lagun zuela. Aurrez aurre Etxabe eta Bengoetxea aritu ziren eta 19 eta 22 irabazi zuten azken hauek. Afizionatuetan, Errasti eta Muruamendiarazek Saralegi eta Iparragirreren kontra jokatu zuten. Muruamendiarazek eta Errastik 7 tanto baino ez zituzten lortu eta azkenean 22 eta 7ko emaitzaz amaitu zen norgehiagoka Saralegi eta Iparragirreren alde.



*Lagunak Pilota Eskolako ordezkariak Batzola eta Laskurain txapeldunordeekin.*

## Hilak 24, 56. Nazioarteko Juan Mugerza krosa

# Paul Tergat keniarrak, munduko korrilaPkilz onenak, Mugerza krosean hartuko du parte

Irabazteko asmoa dauka. Ez die beldurrik arerioei, ezta eguraldiari ere

Azken egunotan, atletismo kontueii buruzko zirkuloetan ez dago beste hizpiderik: Paul Tergat keniarrak Mugerza krosean korrituko du. Astelehenean, iluntzeko 19:30ean LVI. Nazioarteko Mugerza krosaren aurkezpena egin zuten Ego-Toki Elkarteko arduradunek Patxaran Zoco etxearen babesarekin. Harrotasunez eta emozioz azaldu zuten domekan, hilak 24, munduko korrikalari onena, Paul Tergat keniarra Mintxetan ikusi ahal izango dugula.



*Astelehen iluntzeko aurkezpenean Tergat korrikalari keniarra izan zen.*

29 urteko korrikalari honen eurriculum-a ikusgarria da. Azken lau urteotan Munduko Kros Txapelduna izan da. Aurten Sao Paoloko San Silvestre lasterketan eta Sevillako krosean jaun eta jabe izan da. Pistan ere, marka ezin hobeak dauzka: 5.000 metrotan munduko bosgarren marka onena (12h49'87") eta munduko bigarren markarik onena 10.000 metrotan (261127'85"). Denboraldi batez, munduko errekorraren jabea izan zen distantzia berean eta gaur egun munduko txapeldunordea eta txapeldun olinpikoa da. Honez gain, munduko markarik onena dauka maratoi erdian (59'17").

Tergat ez ezik, beste bi keniar, Domingos Castros portugaldarra, Jon Brown ingelesa eta Martin Fiz gasteiztarra ere izango dira. Azken uneko bajarik ere izan da. Julio Reyk baiezkoa emanda bazuen ere, azken unean ez dela e torriko esan du. Junior eta senior emakumeen lasterketen ostean hasiko da proba nagusia, 12:30ak aldera.

## PAUL TERGAT

# "Daukadan guitia emango dut"

Asteazken eguerdian, Ego-Toki Elkarteko Juan Mari Iriondoren laguntzari esker, lau hitz egiteko aukera izan genuen Tergatekin. Txarridunan topatu genuen, bazkaltzen hasi aurretik. Mintxetatik etorri berria zen, entrenatzetik. Nekez igartzen zitzaion bekokiko izerdia. Beti irribartsu, arratsaldean Real Soeiedad eta Athletico de Madrid-en arteko futbol partidua ikustera joateko asmoa zuela adierazi zigun. "Anoetara goaz, Santolaya eta biok". Asko gustatzen zaio futbola eta Real Madrid eta Barcelona taldeak ezagutzen omen ditu. Hala ere, krosa da bere bizitzako pasioa. Mintxetan aritu da entrenatzen, eta esan zigunez, beste egunean futbolean zebiltzan haur batzuekin pentaliak jaurtitzen aritu zen. "Elgoibar herri txikia da eta eroso nago bertan. Harritzekoa da maita honetako lasterketa bat prestatzeko kapazitatea edukitzea. Badira askoz sona handiagoa duten txapelketak, baina nik daukadan guztia emango dut. Ezagutzen dut ibilbidea eta badira aldapa gogor batzuk. Hala ere, nire nahia irabaztea da eta ez zait axola zein diren arerioak ezta zein eguraldi egingo duen ere". Hala ere, nahiago du eguraldi ona egitea, "antolatzakuntza aldetik dena hobeto atera dadin". Berdin zaio euria edo eguzkia izan, terreno sikua ala umela. Tergat-ek badaki bera dela txapelduna.




## MAITZAK

### Futbola

**Haundi 1-** Tropezlin 0
Elgoibar 1- Hamaika Bat 1 (1. erreg.)
Elgoibar 0- Romo 4 (1. N. jub.)
Orio 1- Elgoibar 1 (1, jub.)
Anaitasuna 4 - Elgoibar 3 (Kad.)
Elgoibar 0 - S. D. Eibar 3 (Int.)
Hamaika Bat 3 - Pedrusko 0 (2. erreg.)
Elgoibar 12 - Hamaika Bat 0 (Nesk.)

### Eskubaloia

La Salle 16 - IMH Elg,17 (Sen. mul)

### Areto futboia

C. Urarte 3 - Zur Ta Lur eg. 2 (1. maila)
Txanela 0- Zur Ta Lur Elg. 1 (Auto.)

### Futbitoa

Kunta Kinte 4 - Berrogei Duro 2
S. Braga 1- PSK 10
Los Periaskos 8 - Aizk, Mendibil 0
Lojantzi 5- Los Herminios 3

### Idarraga Kafeak 2. saria

**HAUNDIko** jokalari erregularrena **93/99**

| JOKALARIA | PUNTUAK |
|---|---|
| 1- Aitor Trehino | 25 |
| 2- Eneko | 21 |
| 3- Beita | 18 |
| 4- Txasio | 18 |
| 5- Iker Leonardo | 17 |
| 6- Muguruza | 15 |
| 7- Diaz | 15 |
| 8- Elkoro | 15 |
| 9- G. Lazarobaster | 12 |
| 10- lgor | 11 |
| 11- G. Leonardo | 10 |
| 12- Caro | 10 |
| 13- Madina | 7 |
| 14- Loren | 5 |
| 15- Portu | 1 |

## GENDA

### Areto Futbola, Kiroldegian

**Ostiraia, 22**
**22:10** Elgoibar - Ardiıurri (1. maila)
**23:10** Zur Ta Lur Elg, - Ondarre (Auton.)

### Eskubaloia,...Kiroldegian

**Larunbata, 23**
**16:00** Pagoaga Elg. - Eharialea (Kad. nes.)
17:30 Unceta Elg. - Eharialdea (Jub. nes.)
**19:15 IMH Elg.** - Arrate (Senior mut.)

### Futbola, Mintxetan

**Larunbata, 23**
13:00 Elgoibar - Mutriku (Kad.)
**15:45** Elgoibar - Unidn Txild (Inl)
**17:15** Elgoibar - Urnieta (1. jub.)

### Futbitoa, Kiroldegian

**Igandea, 24**
**9:00** Lojantzi - Los Periaskos
10:00 S. Braga - Aizkorak Mendibil
11:00 Berrogei Duro - PSK
12:00 Kunta Kinte - Aide Globun
12:00 Menisco - Los Herminios

# R. 2 1.2

## Lokat z gardenak

skotan, talde edo disko baten "**kalitatea** baloratzeko ez da nahikoa izaten diskoa entzutea edo zuzenean ikustea. Kalitatea arriskurako ausardian ikus dezakegu. Hemen ondoan dugun herri txiki batean badago animalia hiltegi bat, bertakoentzat `Matadeixa' izenez ezaguna dena. Bertan entsaiatzen duten taldeen artean badago AKAUZAZTE deituriko talde bat. Esan Ozenkiren eskutik, UR GARDENAK izeneko lehen lana kaleratu dute, bikainki Iandutako aurkezpenaren banuan gordetako 16 paisaiaz osaturikoa. Arriskuz betako lan guztiekin gertatzen den bezala, belarri askoren aurrean konbentzionaltasunetik ihes egiteak badirudi kalitatea kentzen nahiz eta askotan zerikusirik izan ***ez.*** ICitarrek, bateriak, txeloak, perkusioak, oihuek, tronpetak,... bihotzaren eta burmuinaren orekaren arteko erritmo kaxa bailiran funtzionatzen dute, desertu ikusezin batean isladatzen diren paisaia deuseztuek, hasierarik eta bukaerarik gabeko bidaiek, zerutik nahiz infemutik bota daitezkeen oihu amaigabeek eta poesiazko hitz lainotuek swans, Faust edo Ende Neti-ren itzalak biltzen dituzte. Benetan gomendagarria (gutxi batzuentzat bada ere), baina dastatzerako orduan... emeki emeki.

Iban Urizar




# Ixidor Solupe:
## "Aurtengo e2a dalumen mullo 3anta Eskeko dirua Ertamorikara naldu nani dou"

*Iaztik, Elgoibarko Santa Eskeko arduraduna dugu Ixidor Solupe, Ramon Uriguen 'Etxegifia' zenaren ordezkoa. BARRENera ate joka etorri zaigu Santa Eskearen egoeraren berri ematera. 2000 urtean 75 urte beteko ditu German Uriguen Etxegiña'k sortutako Santa Eskeak, "baina azken urteotan jende berririk ez da etorri". Emakumerik* ez *dagoela esan digu, "eta gazteak ere gutxi". 75 urteko tradizioa duen Santa Eskeak aurrera egitea "gure esku baino ez dago, elgoibartarron esku, alegia". Santa Eskeko koroak bi egunetan aterako dira: bezperan, otsailaren 4an, Itxaropena abesbatzarekin eta otsailaren 6an, zapatua.*



*Ixidor Soluperen ustetan, Santa Eskeko giroa asko hoztu da azken urteotan.*

- Datorren asteartean hasiko dituzue entsaioak. Bai, hilaren 26an, 29an eta otsailan 2an izango diaz, iluntziko 20:30ean Azoka Plazako azken pisuan. Urtero bezela, dei berezixa egin, nahi diegu herriko gaztiei eta batez ere emakumezkuei. Aspaldixan pertsona berberak urtetzen gera Santa Eskian, berririk ez da sartu. Igez 45-50 Iagun inguru ibili ginan, emakumezko bat bera ere ez dao eta gaztiak ere gutxi. Elgoibarko herrixak plenteau bihar dau ia ohitxura honek merezi daban mantentzia gaurko gizartian. Kaleko girua ere ez da Iehengua bezelakua. Sasoi batian urtian hil zian elgoibartarren etxian aurrian Salbia kantatzen zanian, jendia balkoietan negarrez eoten zan. Gaur egun pasaizian kantatzen da Salbia baina azken 10 urtietan giro hotza igartzen dot.

- Hala ere, berpiztu egin behar den iritzikoa zara. - Noski. Elgoibarko Santa Eskiak gainera, badakaz beste herrixekin konparauta bi berezitasun: batetik, batzen dan dirua behartsuentzat izaten dala eta bigarrenik, urtian hil dianak gogora ekartzen diala Salbia kantatuz.

- Iaz Santa Ageda bezperan irteteko ohitura berreskuratu zenuten. - Bai, Elgoibarko azken urtiotako ohitxuria izan da Santa Ageda aurreko edo ondorengo zapatuan irtetzia. Baina igaz, bezpera eguneko kalejiria errekuperau bihar zala pentsau gendun, kale barruan besterik ez bazan ere. Itxaropena abesbatzaren laguntasunarekin erten gendun eta aurten ere holaxe eitxia pentsau dou. Izan ere, igaz entzun gendun beste talderen batek ba ete zakan ertetzeko asmua baina hola ezin leike hasi, ze azkenian amaitxuko dou talde pilo batek bakoitzak bere kontu ertetzen.

- Aurten batutako dirua ez da CMtas-entzat izango. - Ez. Aurten eta datorren urtian batzen douna 2-3 miliora iristen bada, Honduras edo Nikaraguako herri jakin batera bialtzeko asmua dakagu proiektu konkretu bat eitxeko: eskola bat, kooperatiba bat sortzen laguntzeko,... Elgoibar eta hango herri baten arteko anaitasuna sortzeko modua izango Iitzake. 2 milioira helduko ez bagina Ckitas-era bialduko genduke, azken urtietan bezela.

- Etxegiñak sortutako Santa Eskeak *75* urte beteko ditu 2000 urtean. Ba al duzue zerbait berezia prestatzeko asmorik? - Aurten Plaza Handixan ekitaldi berezixa eingo dou Haritz Dantzari Taldiakin Ramon Uriguen zena gogoratzeko. Datorren urtian, 75 urte beteko ditxugula-eta, gure asmua eskultura figuratibo bat jartzia izango litzake Bolatokixan hiru bertuteren sinbolo bezela: `apaItasuna, iraunkortasuna eta lagunkidetasuna'. German Uriguen, Santi Kortaberria eta Ramon Uriguenek, Santa Eskian bultzatzaile inportantiak izan dianak, ederki sinbolizatzen ditxue hiru bertute hauek. Bide batez, herrixan behartsuen alde lan eitxen daben guztiak omenduko ditxu eskultura honek.

# "ARTEA ardo marraztea baino zer ait genlago da"

*Ainara Garciak 20 urte ditu eta Arte Ederrak ikasten ari da Leioan. Elgoibartarra izan arren aurtengo Gabonetan Eibarko zenbait artista gazterekin batera bertako ...eta **kitto!** Kultur Elkarteak antolatutako erakusketan lan bat jendearen bistan jartzeko aukera izan du.*

**1 - Arte Ederrak ikasten ari zara Leioan.** Aurten hirugarren maila egiten ari naiz eta bertako egituraketa dela-eta, norabide bat hartzera behartuta nagoenez, aukeren artean ikusentzunezkoak hautatu ditut. Hala ere, nik ez dut artearen zatiketa horretan sinesten. Nahiago dut artea arlo orokortzat hartu eta gero proiektu bakoitzaren arabera prozedura batzuk edo besteak jarraitzea. Dena den, nire joera instalazio eta ikusentzunezko elementuekin lan egitea da.

**2 - Zer behar da artista ona izateko?** Ideia berritzaile asko izatea, kontaktu ugari eta proiektuak gauzatzeko dirulaguntzak edukitzea.




**3 - Aurrez erakutsi al dituzu inoiz zure arte lanak?** Erakutsi ditudan lan bakarrak performance-ak dira; hau da, artelanaren sujetua ni neu naiz. Consonni Elkarte Kulturalean egindako `Ni carne ni peseado' izeneko proiektu kolektiboan jarri nituen praktikan. Niri interesatzen zaidana da ikuslegoaren eta artistaren arteko interakzioa.

**4 - Betidanik gustatu al zaizu arte mundua?** Umetan guztiok marraztu izan dugu eta Arte Ederrak ikasteko gogoa txikitatik izan dudala uste dut. Garai hartan, artea gaur egun dena baino askoz esparru mugatuagoa zen niretzat, askoz konbentzionalagoa.

**5 - Eibarko erakusketa batean zure lan bat izan da ikusgai.** Azken urte hauetan *...eta Kitto!* Kultur Elkarteak Eibarko artista gazteen erakusketa antolatu du. Aurten hamar lagunen lanak izan dira ikusgai Gabonetan. Nik baneukan fakultatetik atera eta errealitatearen aurrean jartzeko gogoa eta arteak errealitatean, gizartean duen lekua esperimentatzeko gogoa. Beraz, hau dena kontuan hartuta, nire asmoa eskultura sozialak eraikitzea da.



AINARA GARCIA

**6 Zein izan da aurkeztu duzun lana?** Obra ireki bat izan da. Nik esposizioaren promozioa egin nahi nuen. Hasteko, artista bakoitzari E-mail bana ireki nien. Ondoren, helbide hauek materializatzeko, Gabon garaian hain konbentzionalak diren plantilak egin nituen eta elur spray batez aretoko eskaparatean jarri. Nire proposamena jendearen partehartzea bultzatzea zen, bai era mediatiko zein fisikoan. Ikusleak artea errepresentazioan eta distantzian antzeman beharrean, ikusleak bere barrutik bizitzeko aukera ematea zen nire nahia.

**7 - Aurrera begira ba al daukazu proiektu berezirik?** Nire lanak egiteko gaiak aztertzea nahi dut, gai kontzeptualak. Proiektuak baino, gizarteko gaien azterketan nabil. Bestalde, karrera amaitutakoan kanpora joatea gustatuko litzaidake atzerrian artea nola ikusten den jakiteko. Hemen, nahiko lanpetuta gabiltza artea zer den eta zer ez den definitzen. Kanpoan, aldiz, esperimentazioari bide zabalagoa uzten zaio eta asko interesatzen zait hori aztertzea.

**Irati Agirreazaldegi**


**OIERKI IGOGAILUAK**

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

943 20 35 15 o ABER1AK 943 20 35 15

Bista Eder, 11 (sotanda) o 20600 EIBAR

at440tIlW cr. cw.p.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

# INTERESEKO 11101110[11i1

**OSASUNA**

Anbulategia:
Larrialdiak ........ 943 461111
Txanda hartzeko . 943 743354
Planning-a .......... 943 742950
Alkoholiko Anonimoak . 943740385
O.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
Gurutze Gorna ... 943 743864
Mendaroko Ospitalea.. 943 756264
Odol Emaileak ... 943 743936

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak. 943 740442
PESA (Eibar) 902 10 12 10
Taxi geltokia .... 943 740898

**UDALA**

Euskara Zerbitzua. . 943 744366
Udal Kirol Patronatua.. 943 744415
Kultura Zerbitzua.. 943 742158
Mendaroko Udala. .. 943 756100
Ongizate zerhitzua 943741008
Udaletxea ............. 943 741050
Udaltzaingoa........ 943 741394

**BESTELAKDAK**

Elgoibarko Izarra ... 943 741626
Kiroldegia ............. 943 744415
Kontsumo Bulegoa ... 943 743088
Liburutegia .......... 943 743525
Musika Eskola . 943 742145
Mintxeta ............. 943 744315
Parrokia ............... 943 740842
Postetxea ............ 943 741547
Gaztetxea ............. 943 743572

**ADINEKOEN ETKEAK**

San Lazaro Egodza.. 943 740296
Zaharren Biftolua . 943 740526

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola ... 943 74 21 41
HHI (EPA) 943 74 08 80
Herri Eskola . 943 74 08 79
I. M.H. ............... 943 74 41 32
Herri Institutua
Arreiturre . 943 74 02 67
Ezenarro (Meka).. 943 74 44 80
Ikastola ............ 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea.... 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN............. 943 74 41 12
El Diario Vasco 943 74 40 73
El Correo Español. . 943 74 10 82
Egin ..................... 943 10 84 21
Zazpiki irratia 943 74 34 74

## 22 osttrala

**19:00 IKASTOLAKO JAIALDIA**
Ikastolako frontoian

**22:15 ZINEA**
"La ma'seara del zorro"

## 2 larun a a

**19:30 MUGERZA MEMORIALEKO KORRIKALARIEI ONGI-ETORRIA**
Udaleko Areto Nagusian
Antolatzailea:
Ego-Toki Elkartea

**19:30-22:15 ZINEA**
"La rMseara del zorro"

## 24 igandea

**11:00 LVI. MUGERZA KROSA**
Mintxetan
Antolatzailea:
Ego-Toki Elkartea

**16:30-19:30-22:15 ZINEA**
"La rseara del zorro"

## 2 Astele ena

**22:15 ZINEA**
"La .l scara del zorro"

## 28 osteguna

**19:00 `ELGOIBARK0 IZARRA IDAZ LEHIAKETAK' SARI BANAKETA**
Txan Handia magoarekin
Kultur Etxean

**20:00 HBren ASANBLADA**
Gaia:
Erronka politiko berriak
Kimetz Elkartean

**22:15 ZINE KLUBA**
"Mi nombre es Joe"
Antolatzailea:
Ongarri Zine Kluba

## 29 ostirala

**18:30 TXANDAKAKO INJINERUTZARI BURUZKO SAIO INFORMATIBOA**
IMHn

**18:30 ODOL ATERALDIA**
P. M. Urruzuno 8an

**22:15 ZINE KLUBA**
"Mi nombre es Joe"
Antolatzailea:
Ongarri Zine Kluba

## 11NEA



**Zuzendaria: Martin Campbell.**
**Antzezleak: Antonio Banderas, Anthony Hopkins, Catherine Z. Jones.**

### Lamescaradel ZOPPO

Don Diego de la Vegak aspaldi Iaga zion `El zorro' izateari. 20 urte daramatza kartzelan eta `El zorro' izateko pertsona aproposa topatu behar du Don Rafael Montero gobernatzaile ohiari aurre egin nahi badio. Alejandro Murieta lapur gaztea izango da `El zorro' izateko aukeratuko duena.

## • Ikastolako ikasleen jaialdia

Gaur, hilak 22, Ikastolako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek jaialdia eskainiko dute Ikastolako frontoian iluntzeko 19:00etan hasita. Ernanaldia 2 eta 3 urteko haurren saioarekin hasiko da. Segidan 4 urtekoek, 5 urtekoek eta 1., 2_, 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleek hartuko dute parte. Guraso, ikasle eta ikasle ohi guztiak daude jaialdira gonbidatuta.

## • Oleo ikastaroa

Egur Arte Tailerrak oleo ikastaroa antolatu du otsailaren 1etik 19ra bitartean. Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartean izango dira klaseak Egurrek Ubitarten duen egoitzan. Nahi duenak Egur Arte Tailerrean eman dezake izena arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak arte. Ikastaroa 30 orduz Iuzatuko da.

## • Oihulari Klown taldearen saioa Haizea Emakume Taldearen eskutik

Datorren otsailaren 5ean, ostirala, Haizea Emakume Taldeak antolatutako antzerki emenaldia izango da Herriko Antzokian. Oihulari Klown eta Zingili Zanga1a taldeek hartuko dute parte eta `Klownferentzia' izeneko lana eskainiko dute. Virginia Imaz-ek zuzendutako istorio hau amorrazioz bizitzearen arteari buruzko parodia da. Emanaldia gaueko 22:30ean izango da.

## • Txandakako Injinerutzari buruzko saio informatiboa

Datorren ostiralean, hilak 29, Txankadako Injinerutzaren inguruko bilera-hitzaldia prestatu dute IMH-ko arduradunek. Interesa duen edonori eta bereziki, Txandakako **Injinerutza** ikasketak hasteko asmoa dutenei dago zuzendua. Arrats aldeko 18 : 30etik aurrera ikastetxea bisitatuko dute 19:00ak aldera, bilera-hitzaldia hasiko da.

## • Santa Ageda hezperan kopla kantari baserriz baserri



Elgoibarko Izarratik esan digutenez, otsailaren 4an, osteguna, Santa Agedaren omenez baserriz baserri koplak kantatuz eta dirua eskatuz arituko dira. Amaitu, San Migeleko elkartean egingo duten afariarekin amaituko dute. Aurten San Migel, San Roke eta San Pedro auzoetan ibiliko dira. Bestalde, otsailaren 6an, zapatua, Sallobente eta Urruzuno auzoak koplatuko dituzte Artazo baserriaren alde dirua biltzeko. Koruan parte hartu nahi duten guztiek 943 74 16 26 telefonora deitu behar dute.

III • IN • ■ III III • 1111 111 III • • • • II • • • IIII ■ • • al • ZI • •

ONGARRI zine kluba



**Zuzendaria: Ken Loach.**
**Antzezleak: Peter Mullan, Louise Goodall, Gary Lewis.**

## Mi nombre es Joe

98ko Valladolid-eko Zine Jaialdian urrezko garaikurra irabazi zuen. Pelikula hau Joe izeneko gizon baten erretratu eder eta garratza da. Joe, Eskoziako langabetu bat da. Alkohola utzi du, Glasgow-ko futbol talderik eskasena entrenatzen du eta toxikomanoei laguntzen dien erizain batekin (Sarah) maitasun istorio bat izango du.

■ ■ ■ ■ al • • • • • • • • • • • • • II • • • • • • • 111

## 121£1112

### FARMAZIAK

| | Egunez | Gauez |
|---|---|---|
| 23 | Etxeberria | Anduaga (Santa Ana kalean) |
| 24 | Etxeberria | Anduaga (Santa Ana kalean) |
| 25 | Yudego | Yudego |
| 26 | Zabaleta | Zabaleta |
| 27 | Etxeberria | Etxeberria (Errosario kalean) |
| 28 | Escala | Escala |
| 29 | Bidasolo | Bidasolo |

**ESCALA: Rekaide, 1**
**Soraluze. Tel: 943 75 16 38**
**ANDUAGA: Mendarozabal, 1**
**Garagarza. Tel: 943 75 61 42**
**ZABALETA: Kalebarren, 9**
**Soraluze. Tel: 943 75 13 84**

### OKINDEGIA

**24 igandea Zabaleta**


Aterpe
TABERNA
San Roke auzoa, 5
Tel: 943 74 25 95
Berriz ere zuekin!


ZEZEN-BIDE
AUTO-ESKOLA
Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak
GIDARIAK
GIDARIAK
%10eko deskontua
Gazte Txartelarekin
San Frantzisko, 43 - Tel: 943 74 27 20 - ELGOIBAR
Zezenbide,1-1 Tei: 943 20 34 45 - EIBAR

# GREMIOEN GIDA

4111P¯ .fr
Grernioert gida lionetan azaldu nahi baduzu, deitu ! Tr 94

Fe jr"

**WIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
**'rg 943 74 31 16**

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
**v 943 74 32 38**

**JUARISTI**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana,18
**v 943 74 29 94**

**LODOSO**
Leihoak
Ermuaranbide, 16
**v 943 74 34 90**

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
"a* **943 74 36 34**

**U LAZ1A**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
**v 943 74 05 47**

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
**v 943 74 03 96**

UllIEZWITUDffiT

**GLAS CONTROL S.L.**
Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
**v 943 74 30 94**

**ANGEL**
Santa Ana, 5
**s' 943 74 17 61**

**JAVI**
Erretxindi, 1
111. **943 74 14 80**
**z* 908 77 29 32**

**JUAN CARLOS S.L.**
Urasandi, 59-61
'rk **943 74 34 87**

**ONGI**
Urasandi, 8
**v 943 74 10 82**

**PAGOAGA**
San Antolin kalea, 13
**z• 943 74 02 79**

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
**943 75 50 62**
**s" 907 75 50 62**

**ZALDUA**
Urasandi, 26
**943 74 05 30**

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
To **943 74 07 89**
1:r **908 14 30 40**

**IPINTZA** 11"
Foruen enparantza, 4
**v 943 74 04 40**
**w 907 74 04 40**

**JOSE PINTOREAK**
San Bartolome, 28
1ri **943 74 12 55**
**s' 629 44 23 14**

**LAU PINTURAK**
San Frantzisko, 42
**943 74 18 89**
**943 74 06 73**

117 iiEZEEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
tr **943 74 12 80**

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
**v 943 74 12 38**

**BETI ARGI**
Errosario, 6
**v 943 74 16 44**

**URZELAI**
Santa Ana, 12
"Er **943 74 13 76**

T2Z1111L'El

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
**v 943 74 34 18**

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
**v 943 74 29 87**
**z' 989 58 47 23**

**IPINTZA**
Trenbide, 25
**907 41 78 67**